

Ebazpenen bilduma



Arartekoak 2022. urtean egindako gomendio eta iradokizunen bilduma eta laburpena diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren arloan

2023ko otsaila

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Aurkibidea

1. **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera ezetsi da, EAEn errolatuta egoteko eta bertan etenik gabe bizitzen egoteko betekizuna ez egiaztatzeagatik..... 5**
2. **Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea legezko arrazoirik gabe..... 6**
 - 2.1. DSBEaren prestazio bat eten zuten, elikagai-pentsioa ordaindu ez zuelako: Lanbidek balioetsi zuen ez zituela bete baliabideak arduraz administratzeko eta administrazioan agertu eta harekin lankidetzan aritzeko betebeharrak 6
 - 2.2. Desadostasuna prestazioaren etenaldiaren iraupenarekin eta, nahiz eta beren kabuz agortzen diren jarduketak izateagatik etete ko kausa baliogabetu, prestazioa ofizioz ez berrabiarazi izanarekin 8
 - 2.3. Ez zegoen kausarik erabakitze ko diru-sarrerak bermatzeko errentaren ordainketa kautelaz etetea 9
3. **Diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea erabakitze ko kausarik ez..... 11**
 - 3.1. Egoitza-baimena berritze ko ezespren-ebazpena ez aurkezteak ez dakar eduki ekonomikoko eskubide bat ez baliarazteagatik iraungitze-kausarik..... 11
 - 3.2. Etenaldiari eusteko ebazpena ezin daiteke jo prestazioaren indarraldian bi etete egoteagatik iraungitzea dakarren bigarren etete-kausatzat..... 12



4. Hutsuneak bidegabe jasotako prestazioak eskatzeko prozeduran 14
5. DSBEa lortzeko betekizunei dagokienez ofizios jardutea. Ardurapean haurrak dauzkaten bizikidetz-unitate berezien gehieneko denborazenbaketa hasteko eguna 15
6. Herritarrentzako arretan ematen den informazioa eta ebazpenen arrazoiketa hobetzearen garrantzia 16



Sarrera

Aurreko urteetan bezalaxe, 2022an dokumentu bat egin da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari 2022ko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketari lotuta bidalitako ebazpenak jasotzen dituen -Arartekoaren webgunean argitaratuak-.

Guztira, 9 egin ditugu: 1 ez dute onartu, 7 erantzunaren zain daude, eta 1 amaiera-ebazpen bati dagokio.

Aurtengo urteko txostenean, halaber, nabarmendu egin nahi dugu espedienteak ebazteko eta Arartekoari komunikatu zaizkion arazoak konpontzeko joera nagusitu dela.

Horrek, baina, ez du galarazi DSBE/EPOaren prestazioei buruzko **38 kexa-espedientetan prozedura sinplifikatura** jo behar izatea. Prozedura hori erabiltzen da, Arartekoaren hainbat ebazpenetan jorratu den eta erakunde bietako langileen artean eztabaidatu den auzia hizpide duten kexa-espedienteetan, baldin eta Lanbidek Arartekoaren oharrak onartu ez baditu. Espediente horietan, zeinak aurrean bukatu baitira, honako gai hauei buruzko desadostasunak agertu dira: elikagai-pentsioa ordaindu ez izanaren aurrean bide judizialera ez jotzeagatik, egintza judiziala iraungita ez zegoela; poliziaren txostenaren edukian gabeziak egoteagatik, txosten horixe izaki frogabide bakarra udalaren errolda-agiriaren eta benetako bizilekua edo bizikidetzaren unitatea egiaztatzeke betekizunaren arteko desadostasuna argitzeko; ezkontideei edo antzeko egoeran daudenei etxebizitza berean bizitzeko betebeharra ezartzeagatik, familia lege ezin zitekeenean berriro elkartu; Euskal Autonomia Erkidegotik baimendutakoaz baino denbora gehiagoz irten izana zigortzeagatik, arau-estaldura nahikorik izan gabe; benetako bizilekua egiaztatu ez dela balioesteagatik, pertsona udalaren erroldan inskribatuta egon arren eta udalaren erroldan adierazten den



etxebizitzan bizi ez dela egiaztatzen frogarik egon ez arren; bidegabe jasotako prestazio ekonomikoengatik zorra kitatzeko zenbatekoa murrizteari uko egiteagatik, ahalmen ekonomikoari begiratu gabe, baita zorra pilatutako atzerapen guztiekin konpentsatzeagatik ere, araudian jasotzen den hileko konpentsazio partziala errespetatu gabe.

Bestetik, aurten, aurrera egin da maileguak ezohiko diru-sarreretat hartzearen inguruan zeuden desadostasunetan, baita jatorrizko herrialdeko ziurtagiria aurkezteko eskakizunaren inguruan sortutako desadostasunetan ere, Lanbidek aplikazio-irizpideak aldatu dituelako.

Hona hemen Arartekoak diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren (EPO) arloan 2022an argitaratu dituen ebazpenen laburpena.



1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera ezetsi da, EAEn errolatuta egoteko eta bertan etenik gabe bizitzen egoteko betekizuna ez egiaztatzeagatik

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) prestazioa ezestea erabaki zuen, balioetsi zuelako eskatzaileak ez zuela betetzen benetako bizilekua EAEn edukitzeko betekizuna. Enplegu-erakunde autonomoak ulertzen du bizileku hori galtzen dela hiru hilabetez kanpoan egonez gero, nahiz eta beste datu batzuk egon ondorioztatzeko pertsonaren edo familiaren asmoa bizilekua etxebizitza eta herri horretan mantentzea dela.

Kexaren sustatzailek azaldu zuenez, Senegalera (jatorrizko herrialdera) bidaiatu zuen 2020ko otsailaren 7an, bertan oporrak igaro eta apirilaren 23an bueltatzeko asmoz. Helmugara iritsi eta aste gutxira, ordea, COVID-19ak eragindako osasun-pandemia mundu osora zabaldu zen, eta, ondorioz, haren itzulerako hegaldia bertan behera geratu zen, mugarik gabe. Hala, hegazkin-konpainiak ezin izan zion itzultzeko txartelik eman 2020ko uztailaren 15era arte, hau da, joaneko bidaia egin zuenetik bost hilabete igaro ziren arte.

2020ko martxoan, alarma-egoera dekretatu eta pertsonen mugikortasuna mugatu ostean, mugak itxi ziren, eta estatuiek, oro har, antzeko neurriak hartu zituzten. Senegalen, martxoaren 23an hasi zen larrialdi-egoera, eta ez zen 2020ko ekainaren 30era arte amaitu.

Arartekoaren iritziz, administrazio publikoek kontuan hartu beharko lituzkete osasun-krisiak izan zituen ondorioak; izan ere, segurtasun-neurri zorrotzak eta mugikortasun-murrizketak ezarri ziren, eta, horren ondorioz, oraindik ere kalte handiak egiten ari zaizkio egoera ekonomikoari eta sozialari. Inguruabar horietan, ez da zentzuzkoa DSBEa ukatzea, benetako



bizilekuaren betekizuna ez betetzeagatik. Gainera, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko [abenduaren 23ko 18/2008 Legeak](#), gomendioa idatzi genuen unean indarrean zegoen testuan, ez zuen zehazten zertan zetzan benetako bizilekua egiaztatzeko betekizuna betetzea edo ez betetzea. Lanbideren irizpideen dokumentuan jasotzen da betekizun hori betetzearen inguruko interpretazioa.

Arartekoak Lanbideri adierazi zionez, ez dauka funts objektiborik balioesteak hala nahi izan gabe EAetik kanpo 5 hilabete igaro behar izatearen ondorioz kexagileak benetako bizilekua galdu zuela, herrialde hartan egindako egonaldia luzatu izana justifikatzen eta azaltzen duten arrazoiak nahikoak izan zirelako ulertzeko EAEn bizitzen jarraitu nahi zuela.

Arartekoaren 2022S-1326-21 Ebazpena, 2022ko urriaren 20koa. Horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera herritar bati ukatu izana berraztertzea iradokitzen dio Lan eta Enplegu Sailari, aurreko hiru urteetan erroldaren eta benetako bizileku etengabearen baldintza bete duela egiaztatu duela uste duelako, nahiz eta Covid-19aren pandemiaren ondorioz jatorrizko herrialdean 5 hilabetez egon. ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.

2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea legeko arrazoirik gabe

2.1. DSBEaren prestazio bat eten zuten, elikagai-pentsioa ordaindu ez zuelako: Lanbidek balioetsi zuen ez zituela bete baliabideak arduraz administratzeko eta administrazioan agertu eta harekin lankidetzan aritzeko betebeharrak

Kexagilea DSBEaren titularra zen, eta egungo bikotekidearekin osatzen zuen bizikidetzaren unitatea. Bere bigarren ezkontidea zen hura, eta elkarrekin bi seme-alaba adingabeko zituzten, 4 eta 11 urtekoak. Lehen ezkontidearekin beste 5 seme-alaba eduki zituen (hura ere DSBEaren eta EPOaren titularra zen), eta ezkontide ohiak zuen ume horien zaintza eta jagoletza eskusiboa (harekin bizi ziren); beraz, guraso bakarreko bizikidetzaren unitate ugaria osatzen zuten.

Aitaren eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmenak, zeina 2010eko martxoaren 31n berretsi baitzen judizialki, 300 euroko elikagai-pentsioa aitortzen zien aurreko harremaneko seme-alabei, hilean. 2019ko azken lauhilekoan hasi zen mediku-baja baten ondorioz (depresio kliniko batekin



lotutako osasun mentaleko arazoak zirela-eta), bizikidetz-unitatearen diru-sarrerak gutxitu egin ziren, hileko 760 eurora, eta, aldi batez, ezin izan zuen elikagai-pentsioa osorik ordaindu; izan ere, esan zuenez, elikagai-pentsioa ordaindu ondoren geratzen zitzaionarekin ezinezkoa zen egungo bizikidetz-unitatearen oinarrizko beharrak asebetetzea. Hala ere, aldi hartan, 2019ko urtarriletik 2020ko otsailera bitartean, kexagileak elikagai-pentsio baxuagoa ordaintzen jarraitu zuen (100 eta 200 euro artean hilean), hitzarmenean ezarritako 300 euroen orde, eta bide judizialean ez zuen formalki eskatu aitaren eta seme-alaben neurriak aldatzea. Lanbidek aldi batez eten zion prestazioa, eta gero urtebetez iraungi. Arartekoak uste du elikagai-pentsioa nahi gabe ez ordaintzeagatik sortutako ondorioak gehiegizkoak izan zirela eta, beraz, DSBerako eskubidea eten eta iraungitzeko aukerak berrikusi beharko lirakeela.

Arartekoak balioetsi duenez, ez zatekeen DSBerako eskubidea aldi batez etetea erabaki beharko, ez baitzen egiaztatu ebazpenaren zioetan adierazitako betebeharrak bete ez zirenik. Kexagileak elikagai-pentsioari aurre egin ezin izateko arrazoiak azaldu zituen, eta dokumentazioa aurkeztu. Bada, Lanbiden agertu zela eta harekin lankidetzan aritu zela egiaztatu zuen, eta elikagai-pentsio gisa ezarritako zenbatekoa ez ordaintzeko arrazoiak justifikatu zituen. Gainera, arrazoi horiek prozedura judizial baten xede izan ziren, eta largespen-autoa idatzi zen, ez zegoelako dolorik edo pensioa ez ordaintzeko asmorik: kausa justifikatu bat zegoen. Arartekoaren ustez, ez zegoen arrazoirik DSBerako eskubidea etetea erabakitzeko, ez zituelako urratu, egoera ekonomikoa edo bazterketa-egoera ez larriagotze aldera, eskura zituen baliabideak arduraz administratzeari eta arduraz jokatzeari buruzko betebeharrak, ez eta administrazioaren aurrean agertu eta harekin lankidetzan aritzeko betebeharra ere ([maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren](#) 12.1.c) eta i) artikulua). Lanbidek, baina, ustezko urraketa hura erabili zuen eskubidea etetea erabakitzeko eta, etenaldia urtebetez luzatu ondoren, prestazioa iraungitzea erabakitzeko, urtebetez berriro eskatzeko ezintasunarekin (18/2008 Legearen 28.1.d) artikulua, 4/2011 Legeak emandako testuan).

Arartekoaren 2022R-75-20 Ebazpena, 2022ko urriaren 11koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrikus ditzala diru-sarrerak bermatzeko errentaren aldi baterako etetea eta ondorengo iraungitzea, ez baitago hori erabakitzeko kausarik, izan ere, kexagileak administrazioarekin lan egin du eta justifikatu du behin-behinean ezinezkoa izan zela mantenu pensioa osorik ordaintzea. Gainera, ezinezkotasan hori ezin da alderatu titular guztiek egoera ekonomikoa edo bazterketa egoera areagotzea ekiditeko baliabideak arduraz administratzeko duten betebeharra bete ez izanarekin. ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.



2.2. Desadostasuna prestazioaren etenaldiaren iraupenarekin eta, nahiz eta beren kabuz agortzen diren jarduketak izateagatik eteteko kausa baliogabetu, prestazioa ofizioz ez berrabiarazi izanarekin

Lanbidek hasiera batean balioetsi zuen etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko [urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren](#) 5.1.b) artikuluan jasotzen den betebeharra urratu zuela, ez zuelako etxebizitzaren alokairuaren ordainagiri bat aurkeztu (hilabete bati zegokiona) eta gero ez zuelako jakinarazi 700 euro jaso zituela (betebehar hori 147/2010 Dekretuaren 12.1.f) artikuluan jasotzen da).

Ondorioz, 2020ko uztailaren 22an, erabaki zuen EPOa etetea eta urte bereko azaroaren 24an DSBEa etetea. DSBEaren azken etete hori berrikuspen-prozeduraren esparruan gertatu zen, nahiz eta prozedura horren xedea izan kexagilearen EPOa berrezartzea eta DSBEa berritzea. Prozedura DSBEa etenda amaitu zen, eta, beraz, EPOa ere eten zioten, lehenengoa eteten bada bigarrena ere nahitaez eteten baita. Ondorioz, 2020ko uztailetik 2021eko otsailera bitartean, EPOa etenaldian izan zuen, eta DSBEa 2020ko azarotik 2021eko otsailera bitartean egon zen etenda. Arartekoaren ustez, Lanbidek denbora gehiegiz eduki zuen etenda EPOaren prestazioa. Hilabete bateko alokairuaren ordainagiria ez aurkeztea egintza bakarrean bukatzen den etete-kausa bat da. Horregatik, Arartekoaren iritziz, ez da arrazoizkoa etete-kausaren indarraldia hilabetez baino gehiagoz luzatzea. Gauzak horrela, etenaldiko hilabetea bukatuta, Lanbidek ofizioz egiaztatu beharko zukeen une hartan EPOa sortzeko betekizunak betetzen ziren ala ez, eta, hala bazegokion, berrezarri egin beharko zukeen. Diru-sarrerara jakin batzuen berri ez emateagatik, DSBEa eten zioten, baina etenaldi horrek ere berez agortzen den kausa batean zeukan jatorria. Arartekoak uste du 147/2010 Dekretuaren 45.2 artikuluan jasotzen den kausa dela. Araudiak hilabeteko etenaldia egozten dio kausa horri, baliabideen mailan izandako aldaketak 15 eguneko epean jakinarazteko betebeharra ez betetzeagatik.

Arartekoaren iritziz, Lanbidek prestazioa berrezartzea erabaki beharko zukeen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) 71. artikuluan eta [Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen](#) 63.o) artikuluan aurreikusitako sustapen- eta azkartasun-printzipioak aplikatuz. Printzipio horien arabera, administrazioak ofizioz jardun behar du herritarrek



eskatzeko zain egon gabe, izapidea ahalik eta azkarrena eta efikazena izan dadin.

Arartekoak, sustapen- eta azkartasun-printzipioei erreparatuta, barne-mekanismo bat presta dadila proposatu du, alerta moduko zerbait, berrikuspen-prozedura bideratzen duenak etete-kausa desagertu dela jakin dezan eta, horrela, ofizioz berrabiarazi ahal izan ditzan prestazioak, titularraren berariazko eskaeraren zain egon gabe. Arartekoak uste du prestazioak ofizioz berrezartzea izango litzatekeela administrazio onaren oinarriak hobekien beteko lituzkeen jarduteko modua. Zehazki, EPOa eteteari dagokionez, erakunde honek eskatu dio dagokion espedientea berrikus dezala, ofizioz egiazta dezala ea prestazioa sortzeko betekizunak betetzen ote ziren etete-kausa bukatu zenean eta, hala badagokio, atzerapenei dagokien zenbatekoa ezar dezala. DSBEa eteteari dagokionez, berriz, eskatu du dagokion espedientea berrikus dezala, ofizioz egiazta dezala ea prestazioa sortzeko betekizunak betetzen ote ziren araudiak ezarritako etenaldiko hilabetea igaro zenean eta, hala badagokio, atzerapenei dagokien zenbatekoa ezar dezala.

*Arartekoaren 2022R-257-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etete aldia, zuzenbidearen arabera ez delakoan. **ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.***

2.3. Ez zegoen kausarik erabakitzeke diru-sarrerak bermatzeko errentaren ordainketa kautelaz etetea

Lanbidek prestazioa kautelaz etetea eta ordainketa etetea erabaki zuen, egiaztatu egin zuelako kexagilea ez zela agertu lan-orientazioko hirugarren hitzordura. Alabaina, betebeharrak bat urratu zuen, eta ez betekizun bat.

Arartekoak uste du DSBEaren prestazioaren ordainketa kautelaz eteteak salbuespenezko neurri bat izan behar duela, betiere interpretazio murriztaile baten xede.

Bestetik, prestazioa eteteke prozeduraren izapidea bederatzi hilabetez luzatu zen; beraz, 147/2010 Dekretuaren 48. artikuluan ezarritako epea gainditu zen, artikulua horrek hiru hilabeteko epea ezartzen baitu eskubidea mantentzea, etetea edo iraungitzea ebazteko.



Arartekoak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) 56. artikuluan ezarritako lege-aurreikuspenaren edukia gogorarazi zion Lanbideri, administrazio-prozeduretako behin-behineko neurriak arautzen baititu. Hala, prestazioaren ordainketa eten aurretik, neurri horrek DSBEaren bizikidetzaren unitate hartzaileari kalte konpongaitz edo konponezinik eragingo ez diola haztatu behar da, eta legeek babesten dituzten eskubideak urratuko ez dituela ziurtatu.

Hori dela-eta, Arartekoak espedientea berrius zezala eskatu zion Lanbideri, bai eta kexagileari DSBEa eta EPOa kautelaz eteteko erabakia atzera bota zezala ere, erabakiak zuzenbidearekin bat egiten ez zuela uste baitzuen, honako arrazoi hauengatik:

1.- Prestazioaren ordainketa kautelaz eteteko neurria hartu izana, arauzko babesik ez zuen kasu batean; izan ere, Lanbidek kautelaz eten zuen prestazioa, betebeharrak bete ez zituelako, baina arauak aurreikusten du betekizun bat bete behar ez dela neurri hori hartzeko.

2.- Legeak prestazioari eusteko, prestazioa eteteko edo prestazioa iraungitzeko ebazpena emateko araututako hiru hilabeteko epea igaro ondoren hasitako prozedura iraungitzat jo ez izana.

3.- Prestazioa kautelaz eteteak kexa horren sustatzaileari eragin ziezazkiokeen kalte konpongaitzak edo konponezinak behar bezala neurtu ez izana.

Azaldutakoan oinarrituta, Arartekoak Lanbideri eskatu zion interesdunari ordain ziezazkiola hark jaso gabeko zenbatekoak, 2020ko otsailetik irailera bitartekoak, biak aintzat hartuta.

Arartekoaren 2022R-1162-20-Ebazpena, 2022ko maiatzaren 24koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio baliogabetu dezala kexaren sustatzailearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren ordainketa kautelaz eteteko erabakia, Zuzenbidearen arabera ez delakoan.
ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.



3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea erabakitzeako kausarik ez

3.1. Egoitza-baimena berritzeko ezespen-ebazpena ez aurkezteak ez dakar eduki ekonomikoko eskubide bat ez baliarazteagatik iraungitze-kausarik

Lanbidek 147/2010 Dekretuaren 12.1.i) artikuluan jasotzen den betebeharra (errekerimendua jaso ondoren administrazioan agertu eta harekin lankidetzan aritzekoa) bete ez zuela egotzi zion kexagileari, egoitza-baimena berritzeko ezespen-ebazpena ez aurkezteagatik. Gainera, organismo autonomoak ondorioztatu zuen kexagileak ez zuela baliarazi eduki ekonomikoko eskubide bat (zehazki, ezintasun iraunkorreko pentsioa) eta, halaber, 147/2010 Dekretuaren 12.1.b) artikuluan jasotzen den betebeharra ere ez zuela bete. Urraketa hori, 18/2008 Legearen 28.1.h) artikulua araber, prestazioa iraungitzeko arrazoietakoa bat da, eta, gainera, arau beraren 28.3 artikuluari jarraikiz, urtebetean berriro eskatzeko ezintasuna dakar. Bada, kexagileak pentsio hori jasotzeari utzi zion, Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztzak ebazpen bat eman zuelako, egoitza-baimena eta norberaren kontura lan egiteko baimena berritzea ezesteko. Alabaina, Lanbidek zuzenean lotu zituen interesdunak agiri bat ez aurkeztea eta ezintasun iraunkorreko pentsioa galdu izanaren erantzukizuna hari egozte.

Arartekoaren ustez, eskatutako dokumentu bat ez aurkezteak administrazioaren aurrean agertzeko eta harekin lankidetzan aritzeko betebeharra urratzea dakar, eta prestazioa eteteko kausa da hori, bat etorrita dekretu horren 43.2 artikuluekin eta aipatutako legearen 26.1.b) artikuluekin. Beraz, Arartekoaren ustez, Lanbidek hartu beharko zukeen ebazpena, gehienez, prestazioa eteteko ebazpena zen, eta etete-kausa indargabetu arte (hau da, eskatutako dokumentazioa aurkeztu arte) mantendu beharko zukeen etete hori. Era berean, DSBEa iraungitzea erabaki aurretik Lanbidek frogaprozedura irekitzea izango zatekeen onena, 39/2015 Legearen 77.2 artikuluekin bat. Hori, DSBEa bezalako prestazio bat berrikusteko prozedura behar adinako ziurtasunarekin ebazteko helburuarekin; izan ere, errenta horren xedea da baztertzeko arriskuan edo egoeran dauden pertsonen oinarrizko beharrak asetzea. Dagokigun kasuan, gainera, egoera larriagotu egin zen, kexagileak kardiopatia bat duelako.



*Arartekoaren 2022R-2470-20 Ebazpena, 2022ko ekainaren 22koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berriki dezala Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabakia. Erabaki horrek ezartzen du azkendu egin dela kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko duen eskubidea, izan ere, egiaztatuta geratu da ezintasun iraunkorreko pentsioa jasotzeko eskubidea ez duela galdu berari egotz dakioken arrazoi batengatik. **ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.***

3.2. Etenaldiari eusteko ebazpena ezin daiteke jo prestazioaren indarraldian bi etete egoteagatik iraungitzea dakarren bigarren etete-kausatzat

Kexagilea jatorri senegaldarra duen emakume migratzailea da, eta guraso bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen du 9 urteko seme adingabearekin. Prestazio bat eten zioten, gutxienez etete-kausa bat zegoela egiaztatu zelako. Bigarren ebazpena, berriz, etenda zegoen prestazio bat berrabiarazteko eskaera bati zegokion. Lanbidek prestazioa ez berrabiatzea eta etenda edukitzea ebatzi zuen. Arartekoaren ustez, prestazioa ez berrabiatzeko eta etenda mantentzeko ebazpena ezin daiteke parekatu 18/2008 Legearen 28.1.e) artikuluan (4/2011 Legeak emandako testuan) ezartzen den aurreikuspenarekin. Aurreikuspen horren arabera, DSBEa iraungi ahalko da, prestazioaren bi urteko indarraldian ez-betetzeengatik bi etenaldi badaude. Bi prozedurak egoera desberdinei emandako erantzunak dira. Lanbidek balioetsi zuenez, kexagileak ez zuen bete 147/2010 Dekretuaren 12.1.1 artikuluan jasotzen den betebeharra: “Administraziora jotzea eta harekin elkarlanean aritzea, horretarako eskatzen dionean, Laneratze Hitzarmenean ezarri diren berezitasunak gorabehera”, ez zuelako dokumentazio jakin bat aurkeztu.

Kexagileak egiaztatu egin zuen Lanbideren aurrean agertu zela eta harekin lankidetzan aritu zela. Alde batetik, bere eta alabaren indarreko egoitzabaimen administratiboa aurkezteko errekerimenduaren haritik, kexagileak jakinarazi zuenez, eskatu arren, soilik adingabearena iritsi zen berrituta eman zizkioten hamar eguneko epea bukatu aurretik. Kexagileak ez zekien baimena berritzeko eskaera aurkeztu behar zuenik, eta, horregatik, une horretan zeukan dokumentazioa aurkeztu zuen. 2020ko uztailetik bankuko kontuan izandako mugimenduei dagokienez, kexagileak esan zuen epean aurkeztu zituela. Lanbidek berak egitate hori baieztatu zuen, errekurtsioa ezesteko ebazpenean. Bestetik, etxebizitza alokatzeko kontratua Bizilagunen erregistratzeko eskaera ez aurkezteari dagokionez, kexagileak



prozeduraren hasieratik jakinarazi zion Lanbideri etxearen jabeari eskatu ziola baina hark ezetz esan ziola¹.

Amaitzeko, dokumentazioa administrazio-errekurtsoko fasean aurkeztu izana baliagarria dela nabarmentzen jarraitu behar dugu. Administrazio-errekurtsokak, administratuarentzako berme bat izateaz gain, administrazioaren jardueraren barne-kontrolerako tresna ere badira; goragoko organo batek -edo berberak, berraztertzean- besteak egindakoa osorik berrikusten du, eta ez dago nahitaez lotuta azken horrek kontuan hartu zituen edo hartu ahal izan zituen egitate- edo zuzenbide-elementuak aztertzeari. Kongruentziaren mugak eta kexagilearen hasierako egoera larriagotzeko ezintasuna kenduta (30/1992 Legearen 113. *in fine* artikulua), mugarik gabe birpentsa daiteke berriskuspeneren xede den gaia. Izan ere, ezin da bestela ulertu benetako babes judizialerako eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikuluan xedatutakoa. Hala, artikulua horren edukitik ondorioztatzen da interesdunak eskubidea duela bere interesak eta eskaerak babesteko behar diren frogabideak erabiltzeko.

Horretan oinarrituz, erakunde honek ulertzen du proportzionaltasun-printzipioa ez dela bete. Printzipio horrek erakundeak behartzen ditu neurriak a proposenak edo egokienak eta gutxien murrizten duten neurriak hartzera, arauan adierazitako interes orokorreko helburua lortzeko tresna egokien artetik. Printzipio hori Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko [urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikuluan](#) jasotzen da. Horrenbestez, erakunde honen iritziz, maizterrak errentamendu-kontratua inskribatu ez izanak ekarritakoak, espediente honetan horrek izan duen irismenarekin, guraso bakarreko familia bati erasaten diolako, ez du betetzen proportzionaltasun-printzipioa, eta ez dator bat aplikatu beharreko araudiaren helburuekin (18/2008 Legearen 1. artikulua).

[Arartekoaren 2022R-4-22 Ebazpena, 2022ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria iraungi duen kasu bat, ez baita iraungitzeko kausarik](#)

¹ Arartekoak beste batzuetan ere eman du iritzia, eta azpimarratu du betebeharrak hori ez dela ikusten diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen dituen araudian. Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzko martxoaren 15eko 42/2016 Dekretuak ezartzen du errentamendu-kontratua eta fidantzaren gordailua inskribatzea errentatzailearen betebeharra dela eta modu subsidiarioan baino ez dela egokia inskripzio hori errentariak egitea. Are gehiago, Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzek kontratuak ofizioz inskribatzeko aukera aurreikusten da. Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, gainera, ez du inolako zigorririk ezartzen errentariarentzat. Betebeharra ez denez, DSBE/EPOa jasotzeko aukera ez litzateke erregistroan inskribatzearen mende egon beharko. [Arartekoaren 2020R-1406-19 Ebazpena, 2020ko urriaren 22koa](#). Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazioen erreklamazioa, uste baitu kexagileak egiaztatu duela alokairu-errenta ordaindu duela eta etxebizitza baten errentari gisa eska dakizkiokeen betebeharrak guztiak betetzen dituela.



egon, indarraldian ez delako egon diru-sarrerak bermatzeko errentaren eten bikoitza eta urratu egin direlako bai proportzionaltasunaren printzipioa, bai adingabearen interes gorena. ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.

4. Hutsuneak bidegabe jasotako prestazioak eskatzeko prozeduran

Kexa honen sustatzailea DSBEaren hartzailea izan zen 2011tik 2013ra. Prestazioa urte batzuetan jaso gabe egon eta gero, 2020ko maiatzaren 20ko Ebazpenean berriz ere aitortu zioten eskubidea, baina, 2021eko otsailetik aurrera, Lanbide bere DSBEaren % 30 kentzen hasi zen, 2016an ebatzitako itzulketa-prozedura batean oinarrituz.

Zenbatekoak itzultzea agindu zioten, ezin izan zirelako zehaztu ez bizikidetzaren unitatearen osaera, ez 2011ko abenduaren 16tik 2016ko otsailaren 29ra bitartean igarotako aldiandako diru-sarrerak. Itzultzekoa izan zitekeen zenbatekoa 9.202,81 eurokoa zen.

Aurretik, Lanbidek zor hori itzultzeko betebeharra ezarri zuen (aldi eta kausa berberak izaki oinarrian). Errekurtso judizial baten xede izan zen jarduketa hori, eta epaiak baliogabetu egin zuen, ez zituelako betetzen prestazioak eskatzeko prozedura batek bildu behar dituen gutxiengoak. Lanbidek zenbatekoak eskatzeko beste prozedura bat abiatu zuen, eta interesdunak errekurtsoa jarri zuen administrazio-bidean, Arartekoan kexa jartzearekin batera. Kexa izapidetzean, erakunde honek ondorioztatu zuen gehiegi atzeratu zirela, Lanbidek DSBEaren eta EPOaren lehen eskaera egin zen unean izan zuelako itzultzeko betebeharra eragin zuen egitatearen berri, 2011n, edo, beranduenez, 2013an, kexagileak dokumentu bat aurkeztu zuenean, non kexagilea bikotekide ohiarekin batera ageri baitzen inskribatuta babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan.

Halaber, Arartekoak ondorioztatu zuen Lanbideren jarduna asko hobetu zitekeela; izan ere, zenbait gabezia detektatu ziren, eta prozedurak efikazia juridikoa izateko bermeei eragiten diete gabezia horiek. Hala, 2016ko uztailaren 5eko Ebazpenaren bidez, itzultzeko betebeharra ezarri zen, baina, kexa-espeditzea izapidetzean bildu genuen informazioaren arabera, enpleguko organismo autonomoak 2021eko otsailean (hau da, zorra deklaratu eta lau urtera) betearazi zuen deklarazioa; zehazki, zorra DSBEaren nominatik kentzen hasi zenean. Denbora gehiegi igaro zen zenbatekoak bidegabe jasotzea eragin zuten egitateak gertatu eta



zenbatekoak eskatu zirenetik, eta Lanbidek ez zuen behar besteko arduraz jokatu itzulketa-prozedura osatzen zuten egintzak jakinarazteko orduan.

Aurreko guztiarengatik, Arartekoak Lanbideri adierazi zion bere ustez aplikatzekoa zela 39/2015 Legearen 110. artikulua, eta, ondorioz, gomendatu zion baliogabetu zezala itzulketa-prozedura, horixe izaki kexagileari DSBEaren diru-sarreraren % 30 kentzeko arrazoia.

Arartekoaren 2022R-564-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 15ekoa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrius dezala ebazpen bat, deklaritzen duena nahitaez prestazioak itzuli behar direla diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kontzeptuan, izan ere, erreklamazio prozeduran gabeziak egon ziren eta denbora asko igaro zen Lanbidek itzulketa betebeharra arrazoitu zuten egitateen berri izan zuenetik zorra kobratzen hasi zenera arte.
ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.

5. DSBEa lortzeko betekizunei dagokienez ofizioz jardutea. Ardurapean haurrak dauzkaten bizikidetzaren unitate berezien gehieneko denbora-zenbaketa hasteko eguna

Arartekoak kexa ugari jaso zituen, DSBEa arautzen duen araudiaren interpretazioan egindako aldaketa baten ondorioz; zehazki, Lanbideren [JAR-DBE-023 Instrukzioan](#) jasotzen da aldaketa hori, “147/2010 Dekretuaren 5.2 artikulua ardurapean adingabeak dauzkaten bizikidetzaren unitateentzat ezartzen duen gehieneko denbora-zenbaketa hasteko egunari” buruzkoan.

Indarreko legediak bizikidetzaren unitate independentearen kondizioa aitortzen die zaugarritasun-egoeran daudela egiaztatzen duten pertsonen, baita etxe berean beste senide titular batekin bizi badira ere. Hala, legearen arabera, ardurapean adingabeak dituen familia batek, berez, bizikidetzaren unitate independentea osatzen du, baita etxean beste senide titular batekin bizita ere, eta ez zaio inolako denbora-mugarik ezartzen aurreikuspen horri.

Arauzko garapenak bai, muga bat ezartzen du, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluan, zehazki: bizikidetzaren unitate bereziei 12



hilabeteko gehieneko aldia ezartzen die, salbuespenez beste 12 hilabetez luza daitekeena.

2020ko abenduaren 14an jarri zen indarrean instrukzio berri hori. Gero, 2022ko urtarrilean, enpleguko organismo autonomoak irizpideen dokumentu berria argitaratu zuen, eta, bertan, aztergai dugun instrukzioaren interpretazio berbera jasotzen da.

Arartekoak, espedientea ofizioz izapidetu ondoren, Lanbideri gomendatu zion ezin zaiola denbora-mugarik ezarri, arau-maila nahikoa ez duten barneizaera hutseko tresnen bidez, adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzak-unitate bereziei, halakotzat jotzeko (legean ezarrita dago kondizio hori).

Horrez gain, iradoki zuen beharrezkoa dela hausnarketa bat egitea odol-ahaidetasunezko eta ezkontza-ahaidetasunezko harremanak dituzten hainbat bizikidetzak-unitate esparru fisiko berean bizitzeko ezintasunak dituen ondorioen inguruan, kontuan izanda kolektibo jakin batzuek (besteak beste, guraso bakarreko familiek, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak dituzten familiek, prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak edo gutxiengo kultural bateko kide izateagatik etxebizitza bat eskuratzeko bereizkeria jasaten duten pertsonak) oztopoak dituztela etxebizitza bat eskuratzeko. Arartekoaren iritziz, edozein araudi-mugaketa edo -interpretazio berrikusi beharko litzateke, zuzenean edo zeharka zailtzen duenean bizitoki duin batez gozatzea.

Arartekoaren 2022R-116-21 Ebazpena, 2022ko martxoaren 11koa. Horren bidez, Arartekoak Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrikus dezala haurrak ardurapean dituzten bizikidetzak-unitate berezien denboraren gehieneko zenbaketaren hasiera-data. EZ DA ONARTU.

6. Herritarrentzako arretan ematen den informazioa eta ebazpenen arrazoiketa hobetzearen garrantzia

Amaitzeko, Lanbideren funtzionamenduan eta prestazioen kudeaketan duen garrantziagatik, ebazpen bat aipatuko dugu, Arartekoak adierazi zuelako hobetzeko tarte zegoela, nahiz eta balioetsi Lanbideren jarduna ez zela okerra izan.



Espedientea aztertzean egiaztatu ahal izan genuenez, kexagilearen prestazioak urtebetez baino gehiagoz egon ziren etenda, urtebetez jarraian, eta horrek, araudi aplikagarriaren arabera, DSBEa urtebetez eskatzeko ezintasuna dakar, prestazioa iraungitzen denetik zenbatzen hasita. Beraz, jarduketa egokia izan zen juridikoki. Alabaina, Lanbidek jokabide bermatzaileagoa eduki ahal izan zuen, bat etorrita administrazio-egintzen arazoiketan eska daitezkeen errekerimenduekin, eta informazio jakin bat edota arauzko aurreikuspena sartu ahal izan zituen prestazioak iraungitzeko 2021eko apirilera arte ebazpenean, baita prestazioen aitortza ezesteko 2021eko maiatzeko ebazpenean ere.

Ebazpen horietan, ez zen aipatzen urtebete igaro behar zela DSBEa berriro eskatu ahal izateko, eta horrek interesduna nahastu zuen: saihestu zitezkeen zenbait ekintza egin zituen, alferrik. Beraz, herritarrei ematen zaizkien informazioak eta arretak hobetzeko tartea dutela uste dugu.

2020ko otsailean, kexagilea Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) atera zen. Hasiara batean, bi hilabete eta astebeteko irteera izango zen. Kexagileak esan duenaren arabera, ordea, COVID-19aren pandemiak eragindako mugatxieraren erruz, aurreikusitako datatik urtebetera itzuli ahal izan zen.

2020ko martxoan, Lanbidek DSBE/EPOrako eskubidea etetea erabaki zuen, DSBEa kobratzeko eskubideak ezartzen duena baino denbora gehiagoz egon zelako EAetik kanpo.

Ondoren, 2021eko apirilean, Lanbidek prestazioak iraungitzea ebatzi zuen, 12 hilabetez baino gehiagoz eduki zuelako prestazioa etenda.

EAEra itzuli zenean, interesdunak, 2021eko apirilean, prestazioak aitortzeko beste eskaera bat aurkeztu zuen, baina 2021eko maiatzean ezetsi zioten, eskaera aurkeztu baino urtebete lehenago gutxienez bizikidetza-unitatea eratzeko betekizuna ez betetzea egotzi ziotelako, atzerrira irtetean benetako bizilekua galdu zuela balioetsita.

2021eko ekainean, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen prestazioak ukatzeko ebazpen horren aurka, eta errolda-agiriak erantsi zituen, azken 10 urteetan 5 urtez jarraian benetako bizilekua EAEn izan zuela egiaztatzeko.

Kexagileak 2021eko ekainean eskatu zituen prestazioak berriro ere. Lanbidek, baina, eskaera ezetsi zion, DSBEa iraungita edukitzeagatik, eta prestazioa 2022ko apirilera arte eskatzeko ezintasuna ezarri zion.



2021eko urrian, Lanbidek ezetsi egin zuen eskaera ezesteko 2021eko apirileko ebazpenaren kontra jarritako errekurtsua, arrazoituz errekurtsua izapidetzean ohartu zela prestazioak iraungitzeko 2021eko apirileko ebazpenak berekin zekarrela iraungitze-datatik urtebete igaro arte DSBEa eskatzeko ezintasuna. Hortaz, iraungitzeak 2021eko apiriletik izan zituenez ondorioak, egun hura baino lehen aurkeztutako eskaera guztiak ezetsi behar ziren, prestazioa jasotzeko betekizunak betetzen ote dituen baloratu ere egin gabe.

Arartekoaren 2022NI-1082-21 Ebazpena, 2022ko otsailaren 21ekoa. Arartekoaren jardura amaitzen duena eta Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari eskubideak azkentzeko ebazpenak arrazoitzeko betebeharra gogorarazten diona.

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Arreta zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9
01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18

Bizkaian

Albia eraikina. San Bizente, 8 - 11.a
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate, 19 - 1.a
20005 Donostia/San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88



[Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\)](https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/)

www.ararteko.eus

